

BERMEO. Gaur zortzi hasiko dira musika emonaldiak Lameran eta Andra Mari elizan

Bertoko eta kanpoko musikariak izango dira musika astearen barruan

Oreka Tx taldearen ekitaldiak zabalduko dauz nazioarteko jaialdiaren ateak aurten

Onintza Enbeita |

Oreka Tx txalapartari taldeak zabalduko dau Bermeoko Nazioarteko XVI. musika astea, gaur zortzi. Igor Otxoa, Har-kaitz Martinez, Arantxa Lasa, Eli Ansa, Iñigo Egia eta Iñigo Lurgainek osotzen dabe taldea. Lehenengo biek txalaparta taldea sortu eben, eta Kepa Junkeraren zuzeneko emonaldietan parte hartzen hasi ziran. Gero-ra, Oreka Tx taldea osotu eben. Taldearen lanik garrantzitsue-na *Quercus Endorphina* izeneko diskoa da, eta Bermeon horren laburpena egingo dabe abuztuaren 4an gaueko 22:00etan. Lehenengo ikuski-zun hori Lameran izango da, baina hortik aurrera Andra Mari elizan egingo dira musika aste-ko ekitaldi guztiak.

Abuztuaren 6an Bilbao orkestra sinfonikoaren musikea entzun ahal izango da arratsaldeko 20:00etan Andra Mari elizan. Orkestrea 1922an sortu zan, eta gaur egun Juanjo Mena da bertako zuzendaria. Mozarten Pequeña Serenata Nocturna eta Isasiren Sinfonía nº2 interpretatuko dauz Bilbao orkestreak.

Kanpoko taldeak, opera eta zarzuelea

Abuztuaren 7an Suggia Quarttet taldearen emonkizuna izango da arratsaldeko 20:00etan

Andra Marin. John Palumbo Estatu Batuetako flauta joleak, Ines de Madrazo bibolin jole bilbotarrak, Kyra Philippi biolari holandarrak eta Diego Gil Arbizu Iruñako biolontxelo joleak osotzen dabe taldea. Gaur egun, taldeak, Holandan behar egiten dau.

Hurrengo egunean, Stefan

Madru bibolin jole errumaniarra, eta Arrate Monasterio bilbotar piano jolea izango dira Andra Mari elizan arratsaldeko 20:00etan. Bach, Mozart, Chopin, Brahms eta Sarasatek konposaturiko kantak joko dabez.

Abuztuaren 9an, hainbat opera eta zarzueletako zatiak entzun ahal izango dira Marta Ur-

bieta sopranoaren, Pedro Calderon tenorearen, Jose Manuel Diaz baritonoaren eta Pedro Llanera piano jolearen eskutik.

Azken egunean, abuztuaren 10ean, Harmonia Praguensis haize ganbara orkestrearen ordua izango da arratsaldeko 20:00etan. Orkestrearen zuzendaria Jaroslav Vodnasky da.



EGUNKARIA

Orain arte, Kepa Junkeragaz ibilitako musikariek osotu dabe Oreka Tx txalapartari taldea.

NABARNIZ. Ez dago argi aterpearen gestino norena izango dan, baina beharrean dihardue

Udalak berak kudeatuko dau Nesken eskolako obren lehenengo atala

O. E. |

Nabarnizko nesken eskola zaharrean aterpea egiteko egitasmoa, igaztik onartuta dago Udalean. Aurtengo aurrekontuetatik 20 milioi erabiliko dabez eskolea egokitzen. Halan-dabe, oraindino ez dagoz argi egitsamoaren atal guztiak.

Orain, hasikera, Udalak hartu dau obrearen kudeaketearen ardura. Arkibizi enpresea dabil beharrean, baina promotore papera Udalarena da. Lehenengo atal horretan, eraikinaren es-

truktura atonduko dabe. Batez be, kanpoko zura eta teilatua egokitu behar jakoz eskola zaharrari.

Irail amaierarako edo urriaren hasikerarako atonduta egongo da eraikinaren egiturea. Hortik aurrera jazoko dana, baina, oraindino erabagi barikdago.

Beste aukera batzuen artean, honeexek biak daukaz Nabarnizko Udalak mahai ganean: bigarren atal baten barruko altzari eta azpiegitura guztiak sartu eta berak osotu aterpea, edo os-

terantzean, bigarren atala lehiaketa publikora ataratea. Bigarren kasuan, altzariak eta azpiegitura osotzeko ardura hartzen dauenak hartuko leuke aterpearen kudeaketearen ardura. Beti be, Udalaren baldintzak onartu beharko leukezala kontuan hartuta.

Urritik aurrerako pausoak argitu barik egon arren, Nabarnizko nesken eskola zaharra konpontzen hasi dira. Eraikinaren kanpoko aldea atontzen hasita dagoz. Era batera edo bestera, aterpea egin egingo dabe Nabarnizen. Izan be, mendia gustoko dabenentzat hainbat ibilbide dagoz Nabarniz inguruan, eta nesken eskolea, bera, leku onean dago parajearen bistak ikusi ahal izateko.

Ipuin lehiaketeta

Santiago egunean, garagarriaren 25ean, jai eguna izan zan Nabarnizen. Jai egitarauaren barruan, Nabarnizko XIV. Ipuin Lehiaketako sariak banatzeko lekua be egin zan. Zati bitan banatuta egoan lehiaketeta: atal baten 8 urtetik 13 urterako gazteak sartu ziran, eta beste baten 14tik 16 urtera artekoak.

Irabazleak gernikar ahizta bi izan ziran. Gazteen atalean Maite Goirienak atara eban lehenengo saria, eta nagusien atalean Iraia Goirienak.

Hurrengo jaiak irailean izango dira Nabarnizen. Hil horren 7an hasiko dira Andra Mariak eta zaldi probak izango dira nagusi jai egitarauan.

MUXIKA

Erromeria izango da bihar gauean Urrutxun Lotxo taldearen eskutik

O. E. |

Gaur arratsaldean hasiko dira Urrutxuko jaiak. Er-dibituta dago Urrutxu Mendata eta Muxikaren artean. Hori dala eta, Mendatako Albiz auzoko Madalen jaien jarraipena izaten dira Urrutxuko jaiak.

Gaur, arratsaldeko 17:00etan, XI. Mus Txapelketa egingo da Urrutxun. Ostean, 20:30ak inguruan, Briska txapelketa izango da. Gaueko 22:00etan, trikitilariak alaituko dabe giroa.

Bihar, eguerdiko 13:00etan, mezea emongo da Urrutxuko zelaian, eta 14:00etan Ibarruriko Baso-Txoritxu dantzari taldearen txandea izango da. Ostean, IX. porra txapelketa egingo da.

Arratsaldeko 18:00etan, asto probak egingo dira. Oinak hamburgerestegiko astoa, Askonabi alkartearena, Erleaga anaia eta Juan Jose Bilbaorena ibiliko dira harriari tiraka. Gero, erromeria izango da Lotxo taldearen eskutik. Garagarriaren 31n, San Inazio egunean, Pospolin tiradea egingo da.

Urrutxu eta Albizko jai batzordeak jakin arazo dauenez, batzordeak ez dauz beregan hartuko jaietan jazo leitekezan is-tripuak. Batez be pospolin tiradan eta asto probetan izaten da arriskurik handiena ezbeharrak jatzoteko.

AGENDEA

FORUA

San Inazio jaiak: Gaur gauean kontzertua eskainiko dabe Anoa-Postu, Ken 7, Etsaiak, Ekipo-A eta Txapelketa taldeek. Bihar, iluntzeko 20:00etan hasita, herri potea egingo dabe Mezo eta Montxito trikitilariak alaituta. Astelehenean, herri bazkaria izango da. Bazkarira joateko mexikar jantziak eroan beharko dira, eta gaueko 22:00etan Jalisco mariatxia izango da Foruko plazan.

GERNIKA-LUMO

Musika jardunaldiak: Gaur arratsaldeko 20:30ean, Galdakaoko ganbara abesbatza eta Concert Les Ages izango dira Lumoko San Pedoren elizan. Bihar, ordu eta leku berean, Les Sacqueboutiers de tolouse.